



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Bizkaiak milioi bat euro bideratuko ditu errefuxiatuei laguntzeko

Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatu Teresa Laespada andrea gaur goizean agertu da Bizkaiko Batzar Nagusietan, Bizkaiko Ahal Dugu taldeak eskatuta, Aldundiak errefuxiatuei laguntza emoteko martxan jarriko dituan ekimenak azaltzeko, batez be gatazkatik ihes doazan siriarrak. Aldundiko arduradunak batzordean adierazo dauenez, Foru Aldundiak milioi bat euro bideratuko ditu laguntzetara. Aurreikusitako dauenez, “100 errefuxiatu” inguru helduko dira Bizkaira hiru hilebetz behin, datozan urteetan. Foru Aldundiak bere foru parkeko “20 etxebizitza” blokeauko ditu “hiru hilebetz behin”, harrera beharrei erantzuteko. Onartu dauenez, aterpetxe sarea be erabiliko da, errefuxiatu “olatu” handia etorten bada.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun batzordean izan dauen agerraldian, aldundiko arduradunak, Batzarretan iragarri eban lehenengo agerraldi publikoan, bere agintaldiaren lehenetsunak azaldu ebazanean iragarri ebazan “helburu solidarioetan” sartu dau esfortzu hori, eta horren ostean gogoratu dau bera eta bere saila ez dirala errefuxiatuari harrera emoteko batzordeetako kide izango “pertsona horreek euren duintasuna gordetako eskubidea daukielako”.

Bere esku-hartzean Bizkaiak dauen “printzipio solidarioa” errebindikatu eta lurraldeko herritarrek eta gizarte mailako alkatereek emondako erantzuna azpimarratu dau. Hori dala eta, gizartearen erantzun hori ikusita “oso-oso” eskertuta agertu da. “Bizkaia lurralde solidarioa izan da eta izaten jarraituko dau, eta krisialdi horrek geure lekuan egotea eskatzen deusku”.

Aldundiko arduradunak adierazo dau Bizkaiak “toki mailan eta maila globalean pentsatu” behar dauela, “hemen” hartu behar dauela parte, eta “jatorrizko lekuetan eta Europan dagozan errefuxiatuen kanpamentuetan” gertatzen danaren partaide be izan behar dauela. Horri jagokonez, Bizkaia pertsona horreei harrera eskintzeko “prest dagoala” eta horretarako martxan jarriko diran baliabideak “nahikoa eta gehiago” izango dirala esan dau. Foru Aldundiak gaur egun erabilten dituan aurreikuspenak kontuan izanda, errefuxiatuak “apurka-apurka” helduko dira Bizkaira, “ehun pertsonako taldeetan hiru hilebetz behin”, datozan bi urteetan.

Aldundiaren lana Eusko Jaurlaritzagaz koordinatu egingo da, horretarako sortu dan batzordearen barruan. Batzorde horretan hasi dira daborduko sarreraren “erregistro bakarra” egiteko beharrak eta sentsibilizazio kanpainak. Diputatu andreak adierazo dauenez, “aste gitxi barru” etorriko ei dira lehenengo errefuxiatu talde “siriarrak, irakiarrak, afganiarrak eta eritrearrak”.

Udalei eskaerea egin deutse, lehenengo errefuxiatuak etorten hasten diranean “malguak” izan daitezkan erroldan onartzeko orduan, lehenengo pausu hori dalako “zerbitzu publikoetarako sarrerako atea”. “Asilo Estatutuagaz” heldu beharrean “Nazioarteko Babes” eskariagaz heltzen bada, “arazoak” sortu daitezkan erroldatzeko orduan, esan dauenez.

MILIOI BAT EURO FORU LAGUNTZETAN



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Miloi euroko kopuru hori bide bitik helduko jake errefuxiatuei. 500.000 euro kanpoan proiektuak aurkeztuko dituen alkarteei emongo jakezan diru-laguntza publikoen bitartez; eta beste 500.000 euro, lau urtetan banatuta, Bizkaiko harrera udalerrri guztietara zabalduko dan Goihaibe izeneko programaren bitartez.

Azkenengo programa hori hiru fasetan gauzatuko da. Lehenengoa “harrerakoa” izango da, 6 eta 9 hilebete artean iraungo ditu eta Gurutze Gorriak eta Cear-ek kudeauko dabe, Barne Ministerioaren eta EB-ren funtsakaz. Bizkaiek balorazino bikotxagaz egingo dau bat fase horregaz: bat gizarte arlokoa, udalerrien aldetik, eta bestea Aldundiko Gizarteratze zerbitzuak aurrera eroan beharrekoa. Azpiegiturak “hiruhileko baktotxean 20 etxebizitza” jarriko ditu programaren esku. Laespadak adierazo dauenez, Alokabide izango da etxebizitza foru parke hori kudeatzearen arduraduna, eta bertan, etxebizitzak dagozan lekuak eta hezkuntza arloko baliabideak “bateratu” egin beharko dira.

Bigarren fasea, “gizarteratzeari” jagokona, 18 hilebetera arte luzatu ahal izango da, eta “autonomia” izeneko hirugarrena, barriz, 3 urtera arte. Etapa horretan, Aldundiak modu “integralean” erantzungo deutse errefuxiatuen beharrei, GKE-en zerbitzuak “osatuz”. Etapa horretan, lurraldera heldu diranen alderdi psikologikoa, hizkuntza eta ikasketak landuko dira. “Laguntza ekonomikoa eta erlijino euskarria” eskiniko jake. Arlo horretan, Laespadak interkulturalitatea lantzeko Foru Dekretua onartuko dala iragarri dau.

“Bizkaie arlo globalean be solidarioa” izan behar dala azpimarratu dau Laespadak. Horretarako, 2015eko aurrekontuetan gastau ez diran larrialdietako partidak erabili ahal izango dira. Holan, Gobernu Kontseiluak “500.000 euroko” partidea onartuko dau bihar, giza eta larrialdietako ekintza arloko laguntzetara bideratzeko. Alkarteei emongo jakezan diru-laguntzen bitartez bideratuko dira, proiektu baktotxari “150.000 euro gehienez”.

BATZARRETAKO TALDEEN LAGUNTZEA

Batzarretako taldeek errefuxiatuei arretea eskintzeko Aldundia egiten ari dan esfortzua bultzatu, eta biztanleria zibilaren lan solidarioa azpimarratu dabe. Giza arloko krisi egoeraren aurrean, Batzarretako Bizkaiko Ahal Dugu Taldearen eretziz, Europako erakunde publiko guztiek, Bizkaiko Foru Aldundiak be bai, bere eskumenen barruan, “preminaz eta modu koordinatuan” egin behar dabe lan “giza eskubideak, asilo eskubidea eta harrerarako ibilpide egokiak” bermatzeko pertsona errefuxiatu horreei.

Asun Merinerok esan dauenez “eginbehar morala” da gatazkan dagozan lekuetatik datozen pertsona horreei harrerea emotea. Foku mediatikoa ahultzen bada be, bere taldeak ez dauela exijentzia mailea bajauko esan dau, eta Aldundiak “datuak emon arte” itxaron dau. Aldundiak, “jasoko dogun pertsona kopuruari buruzko datu gehiago eskintzea gura dau, baliabideak beharrezkoak diran ala ez baloretako”. Azpimarratu dauenez, egin behar dan sentsibilizazio lana oso “garrantzitsua” iruditzen jake bere taldeari. Madrilgo Gobernuari bere asilo eta lankidetzak politikak “berraztertze” eskaria egin deutso, horreek “giza eskubideek zuzendu daiezan, eta ez aurrekontu ekonomikoek”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PP taldea be Bizkaira errefuxiatuak ailegetearen alde agertu da. Eduardo Andrések adierazo dauenez, Bizkaie, ganerako administrazioakaz batera, “prest egotea eta eredu izatea” gurako leuke.

“Garrantzitsuena Aldundiak bere baliabideak pertsona horreek jasotzeko prest dituala da”, azpimarratu dau Alexia Castelo sozialistak. PSE-EE taldeko batzordekideak interkulturalitateari buruzko foru dekretua denpora gitxi barru onartuko dala azpimarratu dau, eta jatorriko lekuan egindako beharra “ezinbestekoa” dala esan dau. Bere eretziz, Madrilgo Gobernuaren “borondate politiko” kontua da errefuxiatuak Errefuxiatu Estatutuagaz ailegetea.

EH Bilduk eskatu dauenez, erroldatzea egiteko malgutasun hori “lurraldera heltzen diran pertsona guztiakaz” erakutsi behar da, eta ez errefuxiatuakaz bakarrik. Kanpo politika arloko beharra sustatzea be eskatu dau eta, Bizkaian ezarrira dagozan eta proiektu militarrek aurrera eroaten dituen “Precicast, Sener edo ITP” moduko enpresei emoten jakezan “diru-laguntzei jagokenez” zehatzago esanez. Foru Aldundiari eskaria egin deutso “euskera ikasteko aukerea” eskini daian errefuxiatu taldearen gizarteratzea errazteko, eta “aldian behin agerraldiak” egin daizan, iritsiera prozesua “apurka-apurkakoa” izango dalako.

EAJ-PNV taldetik, Ana Esther Furundarenak gizarterearen, administrazioen eta hirugarren sektoreko alkarteen erantzun “azkarra” azpimarratu dau. Alkarren artean lan egiteko eskaria egin dau, “beste gauza guztien ganetik” pertsonen duintasuna dagoalako. “Jatorrizko herrialdeetan” jardutearen alde agertu da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Bizkaia destinará un millón de euros en ayudas para las personas refugiadas

La Diputada Foral de Empleo, Inserción Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha comparecido esta mañana en las Juntas Generales de Bizkaia para explicar, a petición de Podemos Bizkaia, las iniciativas que pondrá en marcha la Diputación para asistir a las personas refugiadas, principalmente sirias, que huyen de zonas de conflicto. La responsable foral ha señalado que la institución foral destinará un millón de euros en ayudas. Espera que unos “100 refugiados” lleguen a Bizkaia cada tres meses, durante los próximos años. La institución foral “bloqueará 20 viviendas” de su parque foral “al trimestre” para atender las necesidades de acogimiento. Ha admitido que la Diputación llegará a utilizar su propia red de albergues si se produce una “oleada” de llegadas.

En su comparecencia en la comisión de Empleo, Inserción Social e Igualdad de las Juntas Generales de Bizkaia, la responsable foral ha enmarcado este esfuerzo en aquellos “propósitos solidarios” que ella misma anunció en su primera comparecencia pública en las Juntas cuando explicó las prioridades de su legislatura, tras lo cual ha recordado que ella y su departamento no formarán parte de comités de recepción al refugiado “porque estas personas tienen derecho a salvaguardar su dignidad”.

En su intervención, ha reivindicado el “principio solidario” de Bizkaia y ha subrayado la respuesta de la ciudadanía y de las asociaciones del sector social del territorio. Se ha mostrado, por ello, “extremadamente” agradecida por esta respuesta ciudadana. “Bizkaia ha sido y seguirá siendo una tierra solidaria y esta crisis exige que estemos a la altura de las circunstancias”, ha recordado.

Laespada ha señalado que Bizkaia está obligada “a pensar en lo local y en lo global”, a intervenir “aquí” y a ser partícipes de lo que pasa “en origen y en los campamentos de refugiados europeos”. En este sentido, ha señalado que Bizkaia “está preparada” para la acogida de estas personas y que se van a poner en marcha recursos “de sobra”. Las previsiones actuales que maneja la Diputación es que los refugiados lleguen a Bizkaia “de manera escalonada” en grupos de “cien personas cada trimestre”, durante los dos próximos años.

El trabajo de la Diputación se hará en coordinación con el Gobierno Vasco y en el marco de la comisión creada al efecto en donde se está trabajando ya en la elaboración de un “registro único” de entradas y en campañas de sensibilización social. La diputada ha advertido que en “pocas semanas” esperan a los primeros grupos de refugiados “sirios, iraquíes afganos y eritreos”.

Una vez que comiencen a llegar los primeros refugiados, ha pedido a los ayuntamientos que sean “flexibles” a la hora de otorgar el empadronamiento, ya que este primer paso es la “puerta de entrada de los servicios públicos”. El que lleguen con la solicitud de “Protección Internacional” y no con el “Estatuto de Asilo”, podría ocasionar “problemas” con el empadronamiento, ha advertido.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

UN MILÓN DE EUROS EN AYUDAS FORALES

El millón de euros llegará a los refugiados por una doble vía. 500.000 euros lo harán a través de subvenciones públicas que se otorgarán a asociaciones que presenten proyectos en el exterior; y otros 500.000 euros, repartidos en 4 años, a través de un programa denominado Goihabe, que deberá extenderse al conjunto de municipios de acogida de Bizkaia.

Este último programa se desarrollará en tres fases. La primera será la de “acogida” que durará entre 6 y 9 meses, y que gestionará Cruz Roja y Cear con fondos del Ministerio de Interior y de la UE. Bizkaia se sumará a esta fase con una labor doble de valoración: una social por parte de los municipios, y otra a desarrollar por el servicio de Inclusión Social de la Diputación. Azpiegitura pondrá ya a disposición del programa “20 viviendas por trimestre”. Laespada ha señalado que Alokabide será la encargada de gestionar este parque foral de viviendas en el que deberá “casar” la localización de las viviendas con los recursos educativos.

En una segunda fase, la de “integración” social, podrá extenderse hasta los 18 meses, y la tercera fase, la denominada “autonomía”, hasta los 3 años. En esta etapa, la Diputación responderá de manera “integral” a las necesidades de los refugiados, “complementando” los servicios de las ONGs. Aquí se trabajará en el marco psicológico, el idiomático, y en el aprendizaje y refuerzo lingüístico de los llegados al territorio. Se ofrecerá “ayuda económica y soporte religioso”. En este sentido, Laespada ha anunciado la aprobación de un Decreto foral para trabajar la interculturalidad.

Laespada ha puesto el acento también en que Bizkaia deberá ser “solidaria en lo global”. Para ello, dispondrá de partidas de emergencia no gastadas en los presupuestos de 2015. En concreto, el Consejo de Gobierno aprobará mañana una dotación económica de “500.000 euros” destinada a ayudas de acción humanitaria y de emergencia. Se canalizarán a través de subvenciones a asociaciones "por un importe máximo de 150.000 euros" por proyecto.

APOYO DE LOS GRUPOS JUNTEROS

Los grupos junteros han apoyado el esfuerzo foral para atender a los refugiados y han destacado el trabajo solidario de la población civil. Ante la situación de crisis humanitaria, el Grupo Juntero Podemos Bizkaia considera que todas las instituciones públicas europeas, también la Diputación de Bizkaia en el marco de sus competencias, deben trabajar “de forma urgente y coordinada” en iniciativas para garantizar “los derechos humanos, el derecho al asilo y a unos itinerarios de acogida adecuados” para estas personas refugiadas.

Asun Merinero ha dicho que es “deber moral” acoger a estas personas que provienen de zonas en conflicto. Pese a que baje el foco mediático, ha advertido que su grupo “no bajará las exigencias”, y ha esperado que la Diputación “facilite los datos”. Espera que la Diputación ofrezca “datos más numéricos de las personas que vamos a recibir, para valorar si los recursos son los necesarios”. Ha incidido en que les parece “importante” el trabajo de sensibilización que se haga. Al Gobierno central, le ha instado a “revisar” sus políticas de asilo y cooperación, para que éstas estén regidas “por los derechos humanos y no por presupuestos económicos”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El PP ha apoyado también la llegada de refugiados a Bizkaia. Eduardo Andrés espera que la Diputación, en coordinación con el resto de administraciones, “esté preparada y sea un ejemplo”.

“Lo importante es que la Diputación tiene los dispositivos a punto para acoger a estas personas” ha destacado, por su parte, la socialista Alexia Castelo. La apoderada del PSE-EE ha subrayado la próxima aprobación de un decreto foral sobre interculturalidad y ha calificado de “fundamental” el trabajo en origen. A su juicio, es una cuestión "de voluntad política" - por parte del Gobierno central- que los refugiados vengan con el Estatuto de Refugiado.

EH Bildu ha solicitado que la flexibilización en el empadronamiento sea con “todas las personas que llegan al territorio”, no solo con los refugiados. Ha pedido que se fomente el trabajo también en política exterior y, en concreto, con las “subvenciones” a empresas con implantación en Bizkaia –“como Precicast, Sener o ITP”- que desarrollan proyectos militares. Ha pedido, además, al Ejecutivo foral que ofrezca el “aprendizaje del euskera” para mejorar la integración del colectivo de refugiados y que se den “comparecencias periódicas” , ya que el proceso de llegada será “paulatino”.

Desde el PNV, Ana Esther Furundarena ha destacado la “rápida” respuesta de la sociedad, de las administraciones y de las asociaciones del tercer sector. Ha pedido que se trabaje de forma conjunta, porque "por encima de todo" está la dignidad de las personas. Ha mostrado su apoyo en que se actúe también "en los países de origen”.